# BATZAR OROKORRAREN AKTA

*ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL*

Casares Kultur etxean, 1999ko urtarrilaren 30ean Altzako Historia Mintegiaren ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion goizeko 11.00tan, bertan Jon Serrano, David Zapirain, Javier Cantera, Antxon Alfaro, Charo Roquero, Angel Calvo, Pili Lazaro, Javi Castro, Joxerra Fernandez, eta Iñigo Landa bazkideek parte hartu zutela.

*En la Casa de Cultura Casares, a las 11.00 de la mañana del día 30 de enero de 1999, se celebró la Asamblea General de Altzako Historia Mintegia con la asistencia de Jon Serrano, David Zapirain, Javier Cantera, Antxon Alfaro, Charo Roquero, Angel Calvo, Pili Lazaro, Javi Castro, Joxerra Fernandez, e Iñigo Landa.*

## 1. Bukatu berri den lan-urtearen aktibitateen txostena / *Memoria de las actividades realizadas*

### a) Tokiko Bilduma / *Colección Local* (Arduraduna: Juan Carlos Mora)

Bilduma indartzeko asmoz, informatika ekipamenduetan hobekuntza nabarmenak egin ditugu.
Azken asanbladan erabakitakoaren ildotikik, materiala biltzen jarraitu dugu. Katalogatzea, ordea, zailagoa izan da denbora faltagatik. Argazki multzoaren laurdena eskaneatu dugu.
Casares Kultur Etxearekin hiru hilabeterako hitzarmena sinatzeko zorian gaude, izan ere, Tokiko Bildumari behar duen bultzada emateko. Hitzarmenaren arabera AHMk plan bat egingo du Bildumarako materiala bilatzeko, katalogatzeko eta honen zabalkunderako aktibitate pedagogikoak antolatzeko. Lan hau burutzeko asteko 20 orduko lana egingo du Casaresen, hiru hilabeteen zehar. Plan honen truke, Casares Kultur Etxeak 385.000 pezeta emango dio.

*Con el fin de facilitar el trabajo con la Colección y mejorar su gestión hemos realizado una importante inversión en el equipo informático.*
*En la línea de lo decidido en la última asamblea, hemos continuado con la recogida de documentos y en la búsqueda de nuevas fuentes. Por falta de tiempo, no hemos podido llevar a cabo la catalogación como sería de desear. Hemos escaneado una cuarta parte del fondo de fotografías.*
*Estamos a punto de firmar un convenio con Casares con el objetivo de afianzar la Colección mejorando la ordenación de sus fondos, llevando a cabo la catalogación pendiente, y facilitando el acceso y la consulta del público en general.*

## b) Ibilaldiak / *Excursiones* (Arduraduna: Angel Calvo)

Urtean zehar bost ibilaldi antolatu ditugu:

- Elosua-Plazentzia inguru megalitikoa (Bergara-Elgoibar)
- Aitzorrotz (Eskoriatza), Erdi Aroko gaztelutxoa.
- Auza Gaztelu (Aralar), Erdi Aroko gaztelutxoa.
- Jentilbaratza (Ataun), Erdi Aroko gaztelutxoa.
- Ibilaldi geologikoa: Altzako Euskal Jaien egitasmoaren barruan.

*A lo largo de este año hemos organizado las siguientes excursiones:*

- *Estación megalítica de Elosua-Plazentzia (Bergara-Elgoibar)*
- *Restos del castillo medieval de Aitzorrotz (Eskoriatza).*
- *Restos del castillo medieval de Auza Gaztelu (Aralar).*
- *Restos del castillo medieval de Jentilbaratza (Ataun).*
- *Recorrido geológico, en le marco de las Altzako Euskal.*

## c) Agiritegiak / *Archivos* (Arduraduna: Iñigo Landa)

Jarraitu dugu agiriak bilatzen eta biltzen batez ere Iruñeako Elizbarrutiko Agiritegian, Donostiako San Millan Markesaren Agiritegian eta Vallodolideko Real Chancillerian. Zenbait agiri kopiatzea garesti xamar ateratzen ari bada ere merezi du zaharrak direlako (XV. eta XVI. mendekoak) eta gai interesgarriak jasotzen dituztelako.

*Hemos continuado con la búsqueda y recogida de documentos referentes a Altza y que se encuentran en el Archivos Diocesano de Pamplona, Archivo de la Marquesa de San Millán y Vistalegre, y en el Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. La reproducción de algunos documentos resulta algo cara por encontrarse en mal estado y tener que recurrir al microfilmado de los mismos, pero merece la pena el esfuerzo pues son documentos de los siglos XV y XVI muy interesantes.*

## d) Hemeroteka (Arduraduna: Javier Cantera)

Urrian Javier-ek aurkeztu zuen du azken urteetan egindako lana, hain zuzen ere 1995, 1996, eta 1997 urteetan prentsa idatzian Altzari buruz argitaratutako notizien bilduma. Urte bakoitzak karpeta bat osatzen du kronologikoki ordenatuak. Notizia bakoitza moztu eta itsatsia izan da paper txuri batean eta goialdean fitxa bat beterik dago bere datuekin. Orain beste bi karpeta gehiago aurkeztu ditu, 1995. urte arte bilduak genituen notiziak kronologikoki ordenatuak.

*En la reunión de octubre Javier presentó el resultado del trabajo realizado estos últimos años: la recopilación de todas las noticias publicadas en la prensa en los años 1995, 1996, y 1997. Cada año ocupa una carpeta con las noticias ordenadas cronológicamente. Cada noticia ha sido recortada y pegada sobre una hoja blanca, indicando en la parte superior el medio del que ha sido recogida, y finalmente protegida dentro de una funda de plástico transparente. En esta reunión ha presentado dos nuevas carpetas con las noticias de años anteriores a 1995 ordenadas con los mismos criterios que las otras tres carpetas.*

## e) Industria museoa / *Museo de productos industriales* (Arduraduna: Javier Cantera)

Urtean zehar museoak bere lehen pausoak eman ditu, oinarriak eta irizpideak finkatu dira eta aurreneko inbentarioa egin da. Honezkero hogei pieza bildu ditugu. Dirua eta, batez ere, denbora falta da dauzkagun arazorik handienak.

*Durante este año el proyecto de museo ha dado sus primeros pasos: se han marcado las directrices generales del futuro museo y se ha hecho un inventario de las piezas recogidas que al presente rondan la veintena. Hay un problema de falta de tiempo para poder dedicarse al tema pero seguiremos en ello.*

## f) Beka (Arduraduna: Juan Carlos Mora)

Aurten ere "Altzako Historia ikertzeko beka" eskaini dugu. Irabazlea Mª José Hernández del Caño izan da, Larratxoko historiagile gaztea. Burutu duen ikerketaren izenburua izan da: "DEXANESIONES Y ANEXIONES DE ALZA A SAN SEBASTIAN (1821-1940)". Ikerketaren emaitza datorren "ALTZA, HAUTSA KENDUZ" liburu-aldizkarian argitaratuko dugu.
Oro har, beharrezkoa ikusten dugu bide honetatik jarraitzea, alegia, honelako ikerketak diruz laguntzen, baina datorren urterako zenbait aldaketa burutzea pentsatu dugu. Orain arte bekaren dirua aurkeztutako proiektuen artean aukeratutako bakar bati ematen genion. Gerora begira, ordea, pentsatu dugu diru kopuru hori egiteke edo egiten ari diren bat edo bizpahiru ikerketen artean banatzea, ikerketarako diru-laguntza gisa. Honekin espero dugu bekaren lehiara aurkezten ez diren beste arloetara iristea.

*Como en años anteriores, este año también hemos organizado la tercera convocatoria de la "Beca de investigación sobre la historia de Altza", que en esta ocasión ha sido ganada por la joven historiadora de Larratxo, Mª José Hernández del Caño. La investigación que ha llevado a cabo tiene por título "DESANEXIONES Y ANEXIONES DE ALZA A SAN SEBASTIAN (1821-1940), cuyo resultado será publicado en el próximo número del libro- revista "ALTZA, HAUTSA KENDUZ".*
*Creemos que debemos seguir en la línea de ofrecer ayudas de este tipo para promocionar la investigación sobre temas altzatarras. Sin embargo, de cara al año que viene, vemos la necesidad de realizar algunos cambios, concretamente, en lugar adjudicar la beca a un único proyecto de entre los presentados a concurso, hemos pensado en repartir la ayuda entre uno, dos o tres proyectos de investigación que estén proyectados o se estén llevando a cabo en ese momento.*

## g) Argitalpenak / *Publicaciones* (Arduraduna: Iñigo Landa)

- **Hautsa Kenduz**: Honezkero prest daukagu V. alea aurtengo erdialdean argitaratzeko. Hamazazpi kolaborazio bildu ditugu ale honetan eta aurrekoen gai eta estiloari jarraituko dio: lekukotasunak, iritziak, lan literarioak, ikerketa historikoa, fototeka…

*Ya está a punto el nuevo número de Hautsa kenduz que va a hacer el número 5 de la serie. En total hemos reunido diecisiete colaboraciones que, siguiendo el estilo y contenido de los números anteriores, han aportado testimonios, opiniones, trabajos literarios y de investigación histórica, etc.*

- **Estibaus buletina**: Bukatu den urtean ere lau ale argitaratu ditugu. Zenbaki bakoitzetik laurehun kopia inguru egin ditugu, gehienak postaz banatu ditugunak. Buletinaren itxura eta banaketa aurreko urteetan egindakoaren antzekoa izan da.

*Durante el curso que ha finalizado hemos sacado cuatro nuevos números del boletín, con una tirada cercana a los 400 ejemplares por cada uno, distribuidos de forma similar a como lo hemos hecho en años anteriores.*

- **Egutegia**: Aurten estreinako aldiz Altzako Egutegia argitaratu dugu, Joxerra Fernandezen argazkian erakusten dituela.

*Este año hemos publicado por primera vez un calendario sobre Altza, en donde se reproducen varias fotografías realizadas por Joxerra Fernández.*

h) **Altzanet** (Arduraduna: Antton Alfaro)

Kostuak direla eta zerbitzariz aldatu dugu, Eusnet utzi eta Euskaltelera pasa gara. Urte osoan Internet zerbitzua eta posta elektronikoa erabili dugu, azken hau, besteak beste, beste elkarte eta Mintegiaren lagunekin harremanak izateko eta informazioa pasatzeko. Gure Web-orria berritzeko beharra ikusten dugu eta datorren urtean egiten saiatuko gara baita egiten ditugun beste lan batzuk ere (Estibaus, kasu) sarearen bitartez zabaltzen.

*Para abaratar los costos hemos cambiado de servidor, de Eusnet hemos pasado a Euskaltel. A lo largo del año hemos contado con el servicio de Internet y de correo electrónico. Este último lo hemos utilizado sobre todo para mantener los contactos con asociaciones y personas afines a nuestro grupo. Hemos visto la necesidad de renovar y actualizar nuestra página Web e intentar de colocar en la red algunas de las cosas que hacemos, Estibaus p. ej., cosa que intentaremos el curso que viene.*

i) **Bazkideak eta harremanak** (Arduraduna: Jon Serrano)

Une honetan 72 bazkide gara eta 157 harreman ditugu. Azken aldi honetan aipatzekoak dira Getxo-ko Kultur Etxearekin izan ditugun harremanak, haiek ezagutu nahi baitzuten gure Tokiko Bildumaren antolaketa eta funtzionamendua. Antzeko helburuarekin, Añorgako Kultur eta Kirol Elkartekoekin harremanak izan ditugu.

*En estos momentos nuestro grupo está compuesto por 72 socios y tenemos establecidos contactos con otras 157 personas y entidades. A destacar los contactos que hemos tenido con los responsables de la Casa de Cultura de Getxo y Añorgako Kultur eta Kirol Elkartea que querían conocer la organización y funcionamiento de nuestra Colección Local.*

j) **Altzako Euskal Jaiak** (Arduraduna: Jon Serrano)

Aurten ere Altzako beste elkarteekin batera Euskal Jaiak antolatzen parte hartu dugu. Gure elkarteak ibilaldi geologikoa antolatu zuen. Ibilaldia Lau Haizeta inguruetan egin genuen eta oso arrakastatsua izan zen. Ibilaldiaren azalpenekin eta irudiekin folieto bat argitaratu genuen, gero ibilaldian parte hartu zutenen artean banatu zena, baita elkarteko bazkideen artean ere eta Altzako eskoletan.

*También este año hemos colaborado junto a otras asociaciones de Altza en la organización de las Euskal Jaiak. Nos hemos encargado de preparar un itinerario geológico que partiendo de Lau-Haizeta terminaba en Menditxo. Hemos publicado en un folleto el recorrido detallando los puntos de interés,*

*y los repartimos entre los participantes en la excursión así como entre nuestros socios y socias, y a los colegios de Altza.*

## 2. 1996/97 lan-urtearen aktibitateen ekonomi balantzea / *balande económico del curso 1996/97*

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (97-9-1) | 122.144 | |
| Bazkide kuotak | 74.000 | |
| Udal Kultur Patronatua | 320.000 | |
| Orona Kooperatiba | 124.750 | |
| Beka | 280.000 | 170.000 |
| Interesak | 251 | |
| Kudeaketa | 15.346 | 26.596 |
| Fototeka | | 865 |
| Elkarrizketak | | 2.895 |
| Artxibo Dokumentuak | | 37.952 |
| Informatika ekipamenduak | | 420.110 |
| Buletina (*Estibaus*) | 120.000 | 85.459 |
| Altzanet | | 110.909 |
| Argitalpenak | | 32.050 |
| Txangoak | | 3.790 |
| Egutegia | 40.000 | 40.000 |
| Bestea | 124.750 | 14.480 |
| GUZTIRA. . . | 1.096.491 | 945.106 |

*SALDOA (98/12/31):* ***151.385 Pta.***

OHARRA: Kontuan izan behar da aurtengo Batzarra lau hilabetez atzeratu dela hemendik aurrera urte naturalarekin bat egiteko eta, beraz, balantze honen datuak hamasei hilabetena da.
NOTA: Al haber decidido retrasar la celebración de la Asamblea para hacerla coincidir en adelante con los años naturales, Los datos que se presentan son los correspondientes a los dieciseis meses transcurridos desde la última Asamblea.

## 3. Lan-urte berrirako iharduera plana / *Plan de actividades para el nuevo curso*

a) **Tokiko Bilduma** / *Colección Local*

Arduradunak: Juan Carlos Mora eta David Zapirain
Helburuak:

- Gehien kontsultatzen diren gaiei buruz fitxak prestatu jendearen esku jartzeko.
- Bildumaren inguruan aktibitateak antolatu honen fondoak ezagutarazteko.
- Dokumentu berriak katalogatu.
- Altzako interes kultural edo historiko duten lekuen zerrenda osatu eta hauek babesteko urratsak eman.
    - * *Elaboración de fichas informativas con la información básica referente a los temas más consultados.*
    - * *Organización de actividades que ayuden a una mayor difusión de los fondos recogidos en la Colección Local.*
    - * *Continuar con la catolagación de nuevos documentos.*
    - * *Elaborar una lista con los puntos que tengan cierto valor histórico-cultural, y ver que pasos dar para su protección.*

b) Ibilaldiak / *Excursiones*
Arduraduna: Ángel Calvo
Helburuak:

- Altzako bizilagunei eta elkarteko bazkide eta lagunei Altzako eta Euskalerriko kultura hobeto ezagutzeko aukera eskaini.
- Gure helburuak dauzkaten beste pertsona eta elkarteekin ibilaldiak egin egiten dutena bertatik ezagutzeko.

Actividades:

- Visita guiada al palacio de la marquesa de San Millán, en Lasao.
- Visita guiada por Carlos Olaetxea a los castros de Buruntza o Muru.
- Excursión al despoblado de Rada, Oliva, y Bardenas.
- Visitar la colección de fósiles de Agustín Fermín.
    - Visita guiada por Javi Castro a las casas-torre del valle de Deba.
    - Excursión al Irún romano.
- Repasar los mugarris del término municipal de Altza.

c) Agiritegiak / *Archivos*
Arduraduna: Iñigo Landa
Helburuak:

- San Millan eta Vistalegreko markesaren agiritegian dauden agiri garrantzitsuenak kopiatu.
- Valladolideko "Real Chancilleria" aurkitu ditugun XV. eta XVI. mendeko agiriak kopiatu.
- Iruiñeko Elizbarrutian San Martzial parrokiaren "plan benefizial"-ari buruzko agiriak bildu.

d) Hemeroteka
Arduraduna: Javier Cantera
Orain arte egindakoarekin jarraitu.

*Continuar con el trabajo realizado hasta ahora.*

e) Industria museoa / Museo de productos industriales
Arduraduna: Javier Cantera

Ixten edo lekuz aldatzen ari diren lantegiekin hitzegin eta gure museorako interesgarria izan daitekeena biltzen saiatu.

Contactar con algunas empresas conocidas que tienen previsto trasladarse y en las que puede haber depositado algún objeto de interés para nuestro proyecto de museo.

f) Fototeka
Arduraduna: Antxon Alfaro
Helburuak:

- Argazkien bilketarekin jarraitu.
- Argazkiak CD-ROMean gorde.

*Continuar con la búsqueda de fotografías y extender el uso del CD-ROM en la conservación y reproducción de fotografías.*

g) Argitalpenak / *Publicaciones*
Arduraduna: Iñigo Landa
Helburuak:

- Hautsa Kenduz V: ale berria argitaratzeko prest utzi.
- Estibaus Buletina: orain arte bezala lau zenbaki kaleratzen jarraitu eta tirada handitu.
- Artiga Bilduma: ale berri bat prestatu eta argitaratu. Ahaleginak egin agortuak dauen aurrekoen berrargitalpena egiten.
- Ibilialdien foiletoak argitaratu.
- Egutegia: Argazki lehiaketa bat antolatu eta irabazleen argazkiekin 2000. urteko egutegia prestatu.

h) Beka
Arduraduna: Iñigo Landa
Helburuak:

- 
- Altzari buruzko ikerketak bultzatzea, gai guztiei zabalik.
- Aurten izan duen dotazioa gutxienez mantentzen ahaleginduko gara.
- Diru-laguntza ez da nahitaez lan bakar bati soilik emango.
- Orain arte egin diren ikerketak "Boletín de Historia Donostiarra" aldizkarian argitaratzen ahaleginduko gara.

*Continuaremos promocionando la investigación sobre Altza en todos los campos que sea posible. Como mínimo trataremos de mantener la actual dotación económica, pero en esta ocasión le daremos un carácter de ayuda a la investigación, por lo que se procurará atender a todos los poyectos interesantes que se presenten.*

i) ALTZANET
Arduradunak: Antxon Alfaro
Helburuak:

- WEB orri berri bat prestatuko dugu, eguneratua eta informazio gehiago eskainiz.
- ESTIBAUS eta beste zenbait informazio interneten bitartez eskainiko dugu.

*Vamos a renovar la página WEB que tenemos en internet con nuevos contenidos y presentación, además de incorporar a la misma algunas publicaciones como el ESTIBAUS.*

j) Bazkideak, harremanak eta finantziazioa
Arduraduna: Jon Serrano
Helburuak:

- Hacer una campaña de captación de socios.
- Beste elkarteekin eta pertsonekin harremanak eta elkar-lana zaindu eta bultzatu.
- Elkartearen iharduera-plana aurrrera eramateko behar den finantziazioa bilatu.

k) Altzako Euskal Jaiak

Arduraduna: Jon Serrano

- Altzako beste elkarteekin batera euskararen erabilpena bultzatu.
- Ibilaldi bat Altzako kaleetan zehar etxeak eta auzoak ezagutzeko.

## 4. Bazkide berrien onartzea / *Admisión de nuev@s soci@s.*

Aho batez onartuak izan ziren bazkide berri hauek:

*Fueron admitidos por unanimidad l@s siguientes nuevos soci@s:*

*AITOR RUIZ ANSO*
*IÑIGO SUSTAETA SELLES*
*AGUSTIN FERMIN BERECIARTUA*
*NEKANE MARITXALAR PICAZA*
*CARLOS OLAETXEA ELOSEGI*
*ALTZA EUSKALTEGIA*
*JON MIKEL SANCHEZ BARRADO*
*UNAI ELIZASU LERTXUNDI*

Estatutuetan eta aurreko Batzarran ordaindugabeko kuotei buruzkoak aplikatuz, Isabel Murillo Azconari baja ematen zaio gure Mintegian. En aplicación de los estatutos de nuestra asociación y de la normativa sobre impago de cuotas aprobada en la última Asamblea se da de baja a Isabel Murillo Azcona.

Momentu honetan, Altzako Historia Mintegia 71 bazkidez osaturik dago.

*En estos momentos Altzako Historia Mintegia cuenta con un total de 71 soci@s.*

## 5. Bestelakoak / *Varios*

"Bai euskarari akordioaren aldeko adierazpena" sinatzea erabaki dugu.
Hemos decidido firmar la "Declaración de apoyo al acuerdo Bai euskarari".

Gai zerrendako beste punturik gabe amaitutzat eman zen aurtengo Batzar Nagusia.

*Sin otro tema que tratar se dio por finalizada la Asamblea General*

| Secretario | Presidentea |
|---|---|
| Iñigo Landa | Jon Serrano |